

altza

«Sustatu 94» saria Altzara

Larratxoko liburutegian, hilaren 29 eta 30ean Murcia eta Alemaniatik etorritako txotxongilo taldea ikusi ahal izango dute Altzako eskoletako gazteek. VII Txotxongilo Emanaldia aurtengoan Larratxon egingo da kontutan izanik antzez-toki egokia duela inauguratu berri den lokalak.

Txotxongilo emanaldi hauek prestatzeko Tolosako CIDaren ezinbesteko laguntza izan du Altzako Casares Kultur Etxeak.

Txalaka Kultur Elkartean, hilaren 26an, larunbata, «Transfer» heavy taldeak kontzertua eskainiko du arratsko 20.00etatik aurrera. Hasi- era batean iragarria zegoen «Demarras» rock taldearen kontzertua bertan behera geratu da partaide baten ondoeza dela eta.

San Barbara auzoko jaiak ospatuko dira datorren astean eta abenduaren 2,3,4 eta 5ean.

«Liburutegiko xagvak» haur dinamizatzaile taldeak Larratxoko Haur Liburutegia aurkeztuko die bertako haurrei arratsaldeko 5.30etatik aurrera.



Laukote irabazlearen hiru kide azaltzen dira argazkian.

altzako Irrati Tailerrak jaso du Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzza sailak antolatzen duen Sustatu sarietako irrati espezialitateko aurtengo edizioa, konkretuki, «Sobre el mantel» izena duen irratsaioarekin.

Familia gai nagusi

Sari hauetara aurkezteko familia zen gai nagusia eta gai horren ildotik, El Cairo-ko Nazioarteko Kongresuan oinarriturik Agustin Hernandezek, Carlos Alzuetak, Javier Vigarak eta Larratx Garmendiak, Irutxuloko berrimalea azken hau, familiarekiko ikuspuntu

gaztea eman nahi izan zieten Fm 107.4ko entzuleei. Irrati saio irabazle honetan 13 anai-arrebaz osatitako familia donostiar bateko kide batekin, Donostiako hainbat emakume banaturekin eta Errenteriako bikote homosexual batekin hitzegin zuten. Honetaz gain, Gasteizko alkateak, José Angel Cuerdak, sortu berri duen Erregistro Zibila aurkeztu zuen.

Merezitako errekonozimendua

Miloi bateko saria irabaztea ez da txantxetako gauza, baina talde honczat garrantzi gehiena

duena bere lanak izan duen harrera da.

Sari hau ez da izan talde honek lortu duen bakarra, lehengo urtean, laukote honek Sustatu sarietako Ohorezko Aipamena eskuratu zuten irrati espezialitatean. Gazte hauek lanak kalitate eta profesionaltasun handia du eta errekonozimendua eman die Eusko Jaurlaritzak.

Agustin, Carlos, Javi eta Larratx aspaldian dabilta Altzako Irrati Tailerrean eta sari honek esperientzia berrien bila bultzatu ditu.

ARGAZKIA: XIMON